



**EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONESTEN BAITIRA ETA ORIENTAZIO DEPARTAMENTURAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN PLAZA MUGAGABE BATEN KANPOKO DEIALDI BIDEZKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEN BAITA**

Orientazio Departamentua indartzeko beharra antzeman denez, beharrezkoa da, Orientazio Departamentuan, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Arloari atxikitako goi-mailako teknikariaren plaza mugagabe bat sortzeko hautaketa prozesua hastea, kanpoko deialdian, barneko deialdia hutsik geratu baita.

Goi mailako teknikariaren plazako eginkizunak, erantzukizunak eta bertara sartzeko sistema Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29ko bilkuran onetsitako lanpostuen deskribapen eta balorazio memorian eta ebazpen honekin batera doazen oinarrietan jasotakoak dira.

Langile publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen du. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publikotasun printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

**EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.-** Oinarri orokorrak eta espezifikoak onestea, bai eta hautaketa prozesua arautuko duten eranskinak ere, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Arloko goi mailako teknikariaren plaza mugagabe bat kanpoko deialdi bidez betetzeko, eta, kasua bada, dagokion lan poltsa sortzeko.



**BIGARRENA.-** Onespena ematea barneko hautaketa prozesuaren deialdiari, aipatutako plazan sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

**HIRUGARRENA.-** Aurreko xedapenean adierazitako hautaketa prozesuko hautaketa organoa izendatzea:

A. Hautaketa organoaren osaera:

- Lehendakaria: Indesa 2010 SLko giza baliabideen eta orientabidearen zuzendaria edo haren ordezkaria.
- Bokala: Indesa 2010 SLko finantza zuzendaria edo haren ordezkaria.
- Bokala: Indesa 2010 SLko orientazio teknikaria edo haren ordezkaria.

B. Idazkaria:

Hautaketa organoko idazkaria Indesa 2010 SLko idazkari kontuhartzailea izango da, edo haren ordezkaria. Ez du botorik izango.

C. Batzordearen ordezkariak

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitzarekin baina botorik gabe.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea enpresa batzordeari.

Gasteiz,

Sin. Ander Eguidazu Aldalur  
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea